

## **ehbildu**

### EH BILDUREN PROPOSAMENAK 2025EKO AURREKONTUETARAKO

#### **Mugikortasuna:**

-Herri barruko mugikortasuna hobetzeko, udal mugikortasun plana eguneratu eta helburu estrategikoak betetzeko plangintza 2025ean zehar.

-Herribusa egun iristen ez den beste auzoetara zabaltzea eta zerbitzuaren doakotasuna.

Kuantifikazioa: 150.000€

#### **Etxebizitza politika:**

-Etxebizitza publikoak sustatzeko plan bat diseinatzea legegintzaldi honetan, helburu kuantitatiboak ezarrita (etxebizitza kopurua).

-Hutsik dauden etxebizitzetarako erreklamo bat ezartzea. Epea:2025

#### **Azpiegiturak:**

-Komun berriak toki egokietaz ezarri eta hauen mantenu egokia ziurtatu. 2025-2026 artean 3 komun berri eraiki eta egoera kaxkarrean daudenak berritu edo egokitu.

Kuantifikazioa: 225.000€

-Parkeen partidan Maalako estalpearen garbiketa eta konponketa eta azpiegitura hobetzeko azterketa (2025ean) gehitu.

-Ur hornidura landa auzoetara eramateko plangintza bat (epeak, fase bakoitzean egingo diren lanak...)

## **ehbildu**

### **Ingurumen arloa:**

-Herritarrentzako lur publikoak erosteko partida handitzea legealdi bukaera arte

Kuantifikazioa: 50.000€ urtero (150.000€ legegintzaldian)

-Herrian babes klimatikoak sortu eta berdeguneen hedapenerako partida bat.

-Herritarrek erabiltzen dituzten mendi bide askok mantenu falta agertzen dute. Gehien erabiltzen direnak aukeratu eta hauen mantenua eta konponketarako partida handitu.

### **Gizarte arloa:**

-Etxez etxe zerbitzuaren publikazioa. Lehen pauso bezela etxez etxeko zerbitzua udalak zuzenean eskeintzeko bideragarritasun azterketa bat.

-Hezkuntza eta kulturarekin lotutako sorkuntza tailerrak (eskultura, argazkia, eskulanak...) zerbitzu publiko gisa eskeintzea.

-Udalerritik igarotzen diren pertsonen edo etxerik gabeko bizilagunen higiene behar pertsonalak, jantziarena edo arropena asebeteko dituen azpiegitura bat (garbigailu bat, lehorgailu bat, dutxa, arropaz aldatzeko takila, janari edo edari bero bat...)

